



IKASTARO OSAGARRIAK INTERCULTURAL COMPETENCES (5ª ED.)

INFORMAZIO OROKORRA

IKASTURTEA: 2021-2022

ARLOA:Giza Zientziak

KREDITUAK:3 ECTS kreditu (*)

MATRIKULA TASA: 40euro

ARDURADUN AKADEMIKOA:Ainhoa Gómez Pintado

AURKEZPENA

UPV/EHU prestakuntza nazioartera zabaltzearen aldekoa da, ikasleek hizkuntza, kultura eta prestakuntza gaitasunak lor ditzaten, eta etorkizunari aurre egiteko eta arrakastarako aukera zabalagoa izan dezaten gizarte globalizatuko erronkei begira. Esparru horren barruan, beste herri batzuetarako mugikortasun programak sustatzen dira. Norbanakoa kokatzen den eta ohituta dagoen testuinguruaren bestelakoa den ingurune batera mugitzeak, ikasleengan eragin pertsonala izan ohi duela uste dugu. Horregatik, esperientzia hori aurrera eraman aurretik, kulturarteko gaitasun komunikatiboak lantzea beharrezkoa da.

ZURE BILA GABILTZA

Mugikortasun egonaldi bat egingo duzu eta zure gaitasunak garatu nahi dituzu atzerrian hobeto moldatzeko? Euskal Herriko Unibertsitateak prestakuntzaren nazioartekotzea bultzatzen du, ikasleengan hainbat gaitasun (hizkuntza, kultur eta prestakuntza gaitasunak) garatzeko helburu orokorra duena, etorkizunean gizarte globalaren erronkei ekitea ahalbidetzeko ahalik eta arrakasta bermerik handienaz.

Gurea ez den testuinguru batean kokatzeak sekulako eragina dakarrelakoan gaude. Hori dela eta, zure esperientzia pertsonalak zein akademikoak optimizatzeko, mugikortasun egonaldia aurrera eraman aurretik, beharrezkoa da kulturarteko eta komunikazioko gaitasunak lantzea. Baldin eta ingelesezko B2 baduzu eta nazioarteko mugikortasun bat egiteko onartua bazaude edo mugikortasuna egin baduzu eta munduan gaitutako profesional gisa hobeto



jokatzea ahalbidetuko dizuten kulturarteko gaitasunetan sakondu nahi baduzu...
hauxe da egin behar duzun ikastaroa!

Ikastaroa online, EgelaPin, emango da, otsailaren 25etik martxoaren 12ra. Bost orduko ikastaro trinkoa izango da ostiral arratsaldetan eta larunbat goizetan aurrera eramango dena. Informazio gehiago nahi izanez gero, gure webgunea kontsulta dezakezu: <https://www.ehu.eus/eu/web/nazioarteko-harremanak/home>

Gainera, ikastaro hau eginez gero, gehienez ECTS kreditu bateko aitortpena lor liteke UPV/EHUren graduetako ikasketetan.

Apunta zaitetz!

IRTEERA PROFESIONALAK

Gure ikasleek aukeratutako prestakuntza arloa eta lan sektorea edozein dela ere, kulturarteko eta komunikazioko gaitasunak garatzea plus bat da; ibilbide profesionalean aurrera egiteko bultzada bat, eta gure inguruneko enpresetan egiten diren hautaketa prozesuetan gailentzeko erabakigarria izan daitekeen faktore bat. Kulturarteko prestakuntzak hizkuntzei lotutako trebetasunak ez ezik, egokitzapenerako, beste mentalitate batzuk ulertzeko eta ingurune anitzean lan egiteko gaitasunak ere islatzen ditu. Eta, jakina, gaitasun horiek gero eta baloratuagoak dira ingurune globalean diharduten enpresetan.

BALDINTZAK

- UPV/EHUko graduako eta masterreko ikasleei zuzendua dago, beste herrialde batera joango direnak ikastera edo praktikak egitera UPV/EHUK trukerako izango dituen hitzarmen edo programen bidez.
 - Plaza librerik egonez gero, egonaldietarako oraindik onartua ez dagoen edo inoiz egonldirik eginez duen ikaslerik ere onartuko da.
 - Ikastaroa egiteko nahitaezkoa da ingeleseko B2 ziurtagiria izatea, ikastaroa hizkuntza horretan emango baita oso osorik.
-



IRAKASKUNTZA

HASIERA ETA AMAIERA DATA: 2022/02/25 - 2022/03/12

EMATEKO TOKIA: Egela Pi (On-line)

HIZKUNTZA: Ingelesa

INFORMAZIOA/KONTAKTUA

SAIL EDO ORGANO ARDURADUNA: Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen Arloko Errektoreordetza.

HELBIDEA: Errektorego Eraikina. Leioako Campusa

TELEFONOA: 94 601 7903

POSTA ELEKTRONIKOA: competenciaintercultural@ehu.eus

WEB ORRIA: <https://www.ehu.eus/es/web/nazioarteko-harremanak>

(*) ECTS kreditu batek 25 orduko balioa du.